

KOLONEKO ETA ONDESTEKO HABILITAZIO AURREKO KONTSULTA - HADS ESKALA

DATA:

PAZIENTEA:

HADS ESKALA

HAD⁵⁷: Ospitalea, antsietatea eta depresioa

Gaixotasun gehienetan faktore emozionalek duten garrantzia ezagutzen dute medikuek. Medikuek pazientearen egoera emozionala zein den baldin badaki, orduan laguntza hobea eman diezaioke.

Galdeketa hau zure medikuak afektiboki eta emozionalki nola sentitzen zaren jakin dezan egin da. Ez da beharrezkoa ezkerrean agertzen diren zenbakiei arreta jartzea. Irakurri galdera bakoitza eta azpimarratu zure ustez azken astean zure egoera emozionalarekin bat datorren erantzuna.

Ez da denbora askoan pentsatu behar erantzun bakoitza: galdetegi honetan, bat-bateko erantzunek balio handiagoa dute asko pentsatzen direnek baino.

A.1. Estu edo urduri sentitzen naiz:

- 3. Ia egun osoa
- 2. Egunaren zati handi bat
- 1. Noizean behin
- 0. Inoiz ez

D.1. Gauzez beti bezala gozatzen jarraitzen dut:

- 0. Bai, lehen bezala
- 1. Ez lehen adina
- 2. Pixka bat bakarrik
- 3. Jada ez dut ezerekin gozatzen

A.2. Beldur moduko bat sentitzen dut zerbait txarra gertatuko balitz bezala:

- 3. Bai, eta oso bizia
- 2. Bai, baina ez oso bizia
- 1. Bai, baina ez nau kezkatzen
- 0. Ez dut horrelakorik sentitzen

D.2. Barre egiteko eta gauzen alde barregarria ikusteko gai naiz:

- 0. Beti bezala
- 1. Gaur egun, zertxobait gutxiago
- 2. Gaur egun, askoz gutxiago
- 3. Gaur egun, inola ere ez

A.3. Burua kezkaz beteta daukat:

- 3. Ia egun osoa
- 2. Egunaren zati handi bat
- 1. Noizean behin
- 0. Inoiz ez

D.3. Pozik nago:

- 3. Inoiz ez
- 2. Oso gutxitan
- 1. Noizean behin
- 0. Egunaren zati handi bat

A.4. Lasai eta erlaxatuta eserita egoteko gai naiz:

- 0. Beti
- 1. Askotan
- 2. Gutxitan
- 3. Inoiz ez

D.4. Motel eta baldar sentitzen naiz:

- 3. Egunaren zati handi bat
- 2. Askotan
- 1. Noizean behin
- 0. Inoiz ez

A.5. Urdailean “nerbio eta inurridura” sentsazio desatsegina sentitzen dut:

- 0. Inoiz ez
- 1. Batzuetan bakarrik
- 2. Askotan
- 3. Oso maiz

D.5. Nire itxura pertsonalarekiko interesa galdu dut:

- 3. Erabat
- 2. Ez naiz behar bezala zaintzen
- 1. Baliteke behar bezala ez zaintzea
- 0. Beti bezala zaintzen naiz



A.6. Urduri sentitzen naiz, mugitzeari utzi ezin banio bezala:

- 3. Asko
- 2. Dezente
- 1. Ez asko
- 0. Inoiz ez

D.6. Gauzak ilusioz espero ditut:

- 0. Beti bezala
- 1. Lehen baino gutxiago
- 2. Lehen baino askoz gutxiago
- 3. Inola ere ez

A.7. Bat-batean angustia edo beldur handiko sentsazioak izaten ditu:

- 3. Oso maiz
- 2. Nahiko maiz
- 1. Gutxitan
- 0. Inoiz ez

D.7. Liburu on batekin edo irratsaio edo telebista-programa on batekin gozatzeko gai naiz:

- 0. Askotan
- 1. Batzuetan
- 2. Gutxitan
- 3. Ia inoiz ez

Balorazioa: 0 eta 7 artean kasurik ez dagoela kontsideratzen da, 8 eta 10 artean zalantzazko kasua litzatekeela eta 11tik gorako puntuazioak, seguruenik, kasuak direla.